


Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2010eko Diagnosia

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko Taldea



Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2010eko Diagnosia

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko Taldea

2011ko ekaina

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia



Egileak: Ainara Canto, Irama Vidorreta, Iskandar Cabezas
Itzultzailea: Koldo Morales
Diseinu grafikoa: ST3 Elkartea
Inprimategia: Berekintza
ISBN: 978-84-936634-7-6
Lege-gordailua: BI- 1981-2011

Argitalpen hau, Behatokiaren gainerako argitalpenak bezala, dohainik deskarga daiteke www.3sbizkaia.org webgunetik. Haien bidez, gure ekarpena egin nahi diogu Hirugarren Sektorearen hobekuntzari, eta, hortaz, ahalik eta gehien zabaltzea eskertzen dugu eta baimena ematen dugu haren banaketa, kopia eta berrerabilpenerako, beti ere irabazi-asmorik gabe egiten bada eta beraren egilea nor den aitortzen bada.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. AZTERGAIAREN DEFINIZIOA ETA ZEHAZTAPENA	6
3. OHAR METODOLOGIKOAK.....	10
4. IDENTITATEA ETA JARDUERA.....	12
KOPURUA ETA OINARRIZKO SAILKAPENA	12
KOKAPENA	12
KOLEKTIBO HARTZAILEAK, JARDUERAK ETA PERTSONA ERABILTZAILEAK.....	13
JARDUERA-EREMU GEOGRAFIKOA.....	15
ANTZINATASUNA	15
ERAKUNDEAREN JARDUNA INSPIRATZEN DUTEN PRINTZPIOAK	16
5. ERAKUNDEEN EGITURA.....	18
GOBERNU-ORGANOAK	18
DEMOKRATIZAZIOA: OINARRI SOZIALA ETA PERTSONEK	
ERAKUNDEAN DUTEN INPLIKAZIOA	19
ERAKUNDEEN TAMAINA, PERTSONALAREN BOLUMENA ETA BOLUMEN EKONOMIKOA	
OINARRITZAT HARTUTA	21
6. PERTSONAK	24
PERTSONA BOLUNTARIOAK	24
SOLDATAKO PERTSONALA	27
GENERO KONTUAK	32
7. BALIABIDE EKONOMIKOAK	33
DIRU-SARRERAK.....	33
GASTUAK.....	37
LIKIDEZIA ETA ZORPETZE ARAZOAK.....	38
JABETZAKO LOKALAK.....	38
AITORTZA.....	39
AUDITORIAK	39
8. KUDEAKETARAKO ESTRATEGIAK	40
PLAN ESTRATEGIKOAK.....	40
KUDEAKETARI LOTUTAKO POSTU ESANGURATSUAK.....	42
KALITATEA ETA BESTE ZIURTAGIRI BATZUK	42
INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT)	42
KOMUNIKAZIOA	44
9. ERAKUNDEEN HARREMANAK	46
ADMINISTRazio PUBLIKOEK SUSTATUTAKO PARTE-HARTZE EKIMENAK	46
HARREMANA EDO LANKIDETZA INGURUNEO ERAGILEEKIN	46
ZENBAIT ERAGILEREN SOSTENGUA	48
GIZARTEAREN KONFIANTZA.....	49
10. AZPISEKTOREAREN EGITURAKETA.....	50
BIGARREN MAILAKO ERAKUNDEAK.....	50
AZPISEKTOREKO ERAKUNDEEN ARTEKO ELKAR EZAGUTZA.....	51
11. AZPISEKTOREAREN PANORAMARI BURUZKO INTUIZIOAK	53
ETORKIZUNEO IKUSPEGIA.....	53
12. ERANSKINA	54

1. SARRERA

Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2010eko Diagnosia Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Urtekaria¹ proiektutik ondorioztatzen den lan bat da, Hirugarren Sektorearen atal horri buruzko azterketa zehatza eskaintzen duena.

Azterketaren oinarria proiektu horretan bildutako datu kuantitatiboak dira, eta beraren asmoa da azpisektore horretako erakundeek osatzen duten errealitatearen argazkia eskaintzea; izan ere, erakunde horiek ezaugarri batzuk konpartitzen dituzte sektoreko gainerako erakundeekin, baina, aldi berean, badituzte kontuan hartu beharreko definizio-ezaugarri propioak ere.

Kontuan hartuta Hirugarren Sektorearen heterogeneotasun maila oso handia dela, azpisektoreen azterketa partzialetan oinarritutako datu-bereizkuntzek aparteko garrantzia hartzen dute, eta bidea ematen dute erakunde horien errealitate partikularri buruzko ezagutza modu esanguratsuan sakontzeko, haien sustapen eta garapenera egokitutako jarraibideak ezartzeko aukera eskaintzeaz batera.

Txosteneko datuak aztertzeko, Urtekarian erabilitako egitura berdintsua erabili dugu:

- a. Identitatea eta jarduera: erakundeen jarduera deskribatzen duten ezaugarriak,** atenditzen dituzten kolektiboak, eskaintzen dizkieten zerbitzu edo jarduerak, antzintasuna, jarduera-eremu geografikoa, eta abar.
- b. Erakundeen egitura:** gobernu-organoei buruzko datuak, oinarri soziala, tamaina, giza taldearen osaketa, eskura dauden baliabideak, barneko parte-hartzea, eta abar.
- c. Pertsonak:** erakundearen diharduten edo parte hartzen duten bi kolektibo handien inguruko informazio zehatza (boluntarioak eta soldadako pertsonala).
- d. Baliabide ekonomikoak:** erakundearen errealitate ekonomikoari buruzko datuak, finantziario-iturriak, gastuen egitura, eta abar.
- e. Kudeaketarako estrategiak:** kudeaketarako plan edo tresna jakin batzuen ezarpen maila, kalitatea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eta abar.
- f. Erakundearen harremanak:** azpisektoreko erakundeek beste eragile batzuekin dituzten harremanak.
- g. Azpisektorearen egituraketa:** azpisektoreko erakundeek beren artean ezartzen dituzten harremanak, bigarren mailako erakundeekiko harremanak, eta abar.
- h. Panoramari buruzko intuizioak:** erakundearen gogoetak azpisektorearen etorkizun hurbilari buruz (erronkak, oztopoak, eta abar).

¹ Proiektua Bizkaiko Hirugarren Sektorearen webgunean kontsulta daiteke: www.3sbiz-kaia.org

2. AZTERGAIAREN DEFINIZIOA ETA ZEHAZTAPENA

Abiapuntu gisa, lan honek erreferentziatzat hartzen du *Bizkaia Hirugarren Sektore Sozialaren Ziburu Zurian*² landutako definizioa.

Bizkaiko Hirugarren Sektorea hauxe da: gizarte zibilaren ekimen aktiboak, kudeaketa autonomo eta independentea dituztenak, irabazi-asmorik gabekoak eta -oro har- borondatezkoak, beren jarduera esku-hartze sozialera bideratzen dutenak zentzu zabalean, hau da, beren asmoa da ingurune soziala hobetzea, hainbat motatako eremuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren baitan.

Bai Urtekariaren proiektuak eta bai Liburu Zuriarenak ondorengo **jarduera-eremuen** arabera sailkatzen dituzte Hirugarren Sektoreko erakundeak:

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzatza	Hegoaldeko herrialdeen garapenaren alde lan egiten duten erakundeak (GGKE).
Zibikoa	Emakumeen elkarteak, adineko pertsonenak, etorkinenak, auzo elkarteak, ijitoen elkarteak...
Kultura	Erregioetako etxeak, dantza, pintura, antzerki eta euskara elkarteak...
Enplegua	Alor honetan lan egiten duten elkarteak, laneratze-enpresak...
Gizarte Ekintza	Arriskuan dauden kolektiboen aldeko sustapenean eta laguntzan diharduten erakundeak, desgaitasunak dituzten pertsonen elkarteak...
Ingurumena	Ingurumenaren zaintzan, landa-garapenean eta gisa bereko gaietan lan egiten duten erakundeak ...
Aisialdia	Aisialdiko Elkarteak ...
Osasuna	Gaixotasunek edo droga-mendetasunak jotako pertsonen erakundeak, gaixotasun edo droga-mendetasunak jotako pertsonen kolektiboei laguntzen dieten erakundeak ...
Giza Eskubideak	Giza Eskubideen defentsa eta sustapenaren alorrean lan egiten duten erakundeak ...
Besteren bat	Aurrekoetako bat ere ez.

Hirugarren Sektorearen definizio hori hartuta, eta barne hartzen dituen jarduera-eremuak kontsideratuta, oraingoan erabaki dugu aztergaia mugatzea eta azpisektore bat soilik jorratzea, alegia, zentzu zabalean **Hirugarren Sektore Sozial** bezala edo **Gizarte Ekintza**ren Hirugarren Sektore bezala definitu dugun azpisektorea.

² Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiaren webgunean dokumentu hauek kontsulta daitezke: *inotasseminarioi* eta *inuestradeфинicióni* (www.3sbizkaia.org). Orobat, Hirugarren Sektorearen definizio operatiboa osatzen duten irizpideak ere kontsulta daitezke.

Azpisektore horretan sartuko lirateke gizarte ekintzaren (zentzu zorrotzean), enpleguaren eta osasunaren eremuko erakundeak, eta baita eremu zibikoko erakunde batzuk ere: adineko pertsonen erakundeak, emakumeenak, etorkine-nak eta ijitoenak³.

Emakumea	Emakumeen elkarteak
Adineko pertsonak	Adineko pertsonen elkarteak
Etorkinak	Etorkinen elkarteak
Ijitoak	Ijitoen elkarteak
Enplegua	Laneratzearen alde lan egiten duten elkarteak, laneratze-enpresak...
Gizarte Ekintza	Bazterketa arriskuan dauden kolektiboen sustapenean eta laguntzan diharduten erakundeak, desgaitasunak dituzten pertsonen erakundeak...
Osasuna	Gaixotasunek edo droga-mendetasunak jotako pertsonen eta beren senideen erakundeak, edo pertsona eta familia horiei laguntzen dietenak.

Hirugarren Sektore Sozialaren definizioa

“*Hirugarren Sektore Sozialaz*” eman dezakegun definizioaren arabera, sektore hori osatzen duten erakundeek pertsonen sustapen eta inklusio sozialaren alde dihardute, hirugarren sektorearen baitan, eta, horri begira, “sistema edo politika sozialekin”⁴ zerikusia duten jarduerak garatzen dituzte, eskubide sozialen erabilera efektiboa errazteko eta pertsonen gizarte-ongizatea eskuratzen laguntzeko, bazterketa edo ahulezia egoeran daudenei arreta berezia eskainiz.

- 3 Jasotako erantzunen kopuruaren eraginez, ijitoen erakundeek kasuan ezinezkoa izan da eremu hori behar den bezala islatzen duen azterketarik egitea. Etorkinei eta ijitoei laguntzen dieten erakundeak gizarte ekintzaren eremuan daude sartuta.
- 4 Demetrio Casadok sailkapen hau proposatzen du “sistema edo politika sozial” deritzenen -tzat: osasun-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak, lanaren babes soziala, errentako aseguru eta diru-laguntzak, etxebizitzaren babes soziala, eta gizarte-zerbitzuak.

Halaber, dioenez, «komenigarria da ohartaraztea autore eta instituzio batzuek zentzu zabala goa ematen diotela “gizarte-zerbitzuak” terminoari, zeren aipatutako sei adarrak sartzen baitira horren barruan». Halaber, bere esanetan, «konbentzio terminologiko hori hartzen dutenetako batzuek, baina ez horiek bakarrik, “gizarte-zerbitzu pertsonalak” deitzen diote seigarren adarrari, osotasuna ez nahasteko beraren elementu batekin. Aipamena testu honetan ageri da: *“Situación y perspectivas del sistema público de servicios sociales en la CAPV. Dossier para el debate”*. Eusko Jaurlaritzak, Vitoria-Gasteiz, 2005, 41. orrialdea.

Definizio hori oso hurbil dago Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren Urtekarian egindakotik⁵, eta baita Gizarte Ekintzako GKEen Plataformak egiten duen definizio-tik ere⁶; beraren abantaila da espazio zabal bat definitzen duela eta aldi berean ondo bereizten dela beste espazio batzuetatik (hirugarren sektore kulturala, GGKEak...).

Espazio hori historikoki alda daiteke, baina ez du kanpo uzten bigarren maila-ko sare eta erakunde berberetan gaur egun biltzen diren eremuetako bat ere ez: haurrak eta gazteak, adineko pertsonak, emakumeak, etorkinak, desgaitasunak dituzten pertsonak, gaixotasunek jotako pertsonak eta horien senideak, etxerik gabeko pertsonen edo bazterketa-egoera kronikoak pairatzen dituzten pertsonen gizarteratzean eta laneratzean diharduten erakundeak, droga-mendetasunetatik ondorioztatutako arazoak tratatzen dituztenak...

Edonola ere, erakunde bat eremu jakin batean kokatu arren, eremu batean baino gehiagotan jardun dezake. Horrela gertatzen da, adibidez, emakumeen, adineko pertsonen eta etorkinen erakundeek kasuan; beraz, haien jarduerak zeharkako izaera izan beharko luke berez. Edo desgaitasunak dituzten pertsonen erakundeek kasuan, sarritan enpleguaren, gizarte ekintzaren eta osasunaren eremuetan aritzen baitira, edo hezkuntzaren eremuan ere bai (adibidez: desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta beren familien erakundeak).

Horrenbestez, nahiz eta erakundeak definitu ohi diren beren jarduera egoera jakin batean dauden pertsona, familia edo taldeengana orientatzeagatik (langabezia; bazterketa edo bazterketa-egoerak pairatzeko arriskua; gaixotasuna, desgaitasunak...) edo pertsona, familia edo taldeen ezaugarri baten arabera orientatzeagatik (adina, sexua, jatorria), sarri askotan zeharkako eran jarduten dute erantzukizun publikoko eremu edo sistemen artean, neurri desberdinetan.

Beste alde batetik, Hirugarren Sektore Soziala definitzerakoan, erakundeei dagokien espazioa mugatu ez ezik beharrezkoa da beren esku-hartze ereduaren ezaugarriak ere kontuan hartzea.

Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren 2009ko Urtekariak ("Anuari 2009 del Tercer Sector Social de Catalunya"), egiten duen kontsiderazioaren arabera, HSS-ko erakundeak formalki eratutako eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, batez ere kolektibo ahulen inklusio sozialaren alde dihardutenak eta

- 5 Hirugarren Sektore Sozialaren definizio operatiboa honela ematen da 2009ko Urtekarian: «Pertsonaren sustapenerako eta kolektibo ahulen inklusiorako lan egiten duten Hirugarren Sektoreko erakundeez osatutako Sektorea». Iturria: iAnuari 2009 del Tercer Sector Social de Catalunya. Taula d'entitats del Tercer Sector Social de Catalunya y Observatori del Tercer Sector, Bartzelona, 2009, 42. orrialdea.
- 6 POASEk Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektoreaz egiten duen definizioaren arabera: «Sektore hori osatzen duten erakundeak izaera boluntarioa duten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, herritarren ekimen libretik sortu direnak eta modu autonomo eta solidarioan funtzionatzen dutenak, interes orokorreko ekintzen bidez ahaleginak eginez eskubide sozialen aitortza eta erabilera bultzatzeko, kohesioa eta inklusio soziala beren dimentsio guztietan lortzeko eta kolektibo sozial batzuek taxuzko ongizate mailatik kanpo geratzeko duten arriskuari aurre egiteko». Iturria: Gizarte Ekintzako GKEen Plataforma (2006). *Plan estratégico del tercer sector de acción social*. Gizarte Ekintzako GKEen Plataforma, Madrid, 13. orrialdea.

beren gizarte ekintza hurbiltasun printzipioen arabera betetzen dutenak (lurraldetik edo ingurunetik hurbil aritzea).

HSSko erakundeek ezaugarriak definitzea eta -hori egitean- esku-hartze ereduarekin lotuta dauden alderdiak ere kontuan hartzea oso garrantzitsua da beren jardunari eusteko, hau da, ondoren adierazitako ezaugarriak dituen jardunari eusteko:

- Erakundeak lotuta egotea lurralde, komunitate edo kolektibo jakin bati (iraunkortasuna).
- Pertsona, familia edo komunitateei ikuspegi integral batez laguntzea, beharren ikuspuntutik eta epe luzean -etenik gabe-. Batzuetan bizitza osoan ere, beharrezkoa izanez gero.
- Ukitutako pertsonen, boluntarioen, soldatako pertsonen eta gainerakoen parte-hartzea egituratzea erakundeek ekintzan eta barne-bizitzan.

Gizarte ekintzaren eremua, Hirugarren Sektore Sozialaren barruan

Hirugarren Sektore Sozialaren baitan, gizarte ekintzaren erakundeak honela definituko genituzke zentzu zorrotzean: gizarte zerbitzuen alorrean eta zerbitzu sozialen eta beste eremu batzuen (gizarte- eta hezkuntza-esparrua, gizarte- eta osasun-esparrua, soziolaborala, soziokulturala...) arteko elkarguneetan modu espezifikoa esku hartzen duten erakundeak.

Gizarte zerbitzuen jarduna pertsona guztien gizarteratzearen sustapenera zuzentzen da, ahalik eta autonomiarik handienaz, haien gaitasunak sustatuz eta behar duten laguntza eskainiz gizartearen integratzeko eta modu iraunkorrean edo beren bizitzako une jakin batean paira ditzaketen mendetasun, bazterketa, babesgabetasun edo arrisku egoerei aurre egiteko.

Nolanahi ere, pertsona eta familien inklusio soziala bultzatzeko (alor hauetara iristeko bidea eskainiz: enplegua, hezkuntza, osasuna, kultura, informazioa, harreman-sareak...), ezinbestekoa da beste eremu edo sistema batzuen esku-hartzea ere.

Alde horretatik, badirudi beharrezkoa dela gizarte zerbitzuen helburua zorrotzasunez definitzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik, sistema bakoitzaren berezko erantzukizuna mugatzeko eta gizarteratzeko laguntza behar duten baina autonomia duten pertsonen beste sistema eta eremu batzuetako berezko jardueretara iristen laguntzeko: hezkuntza, osasuna, kultura...

Beste alde batetik, funtsezkoa da hirugarren sektorea sustatzeko politikak ere bultzatzea, eta baita administrazio publikoen eta hirugarren sektorearen arteko lankidetzaren bultzatzea gizarte zerbitzuen eremutatik kanpo; adibidez: osasun-eremuan.

Lan honen ondorioei begira, Hirugarren Sektore Sozial (HSS) terminoa erabili dugu eremu orokorrak hitz egiten dugunean, eta “Gizarte Ekintzaren eremua” gizarte zerbitzuen eremu espezifikoak hitz egiten dugunean.

Hirugarren Sektore osoak hitz egiten dugunean, Hirugarren Sektore terminoa erabiliko dugu, edo Hirugarren Sektore orokorra.

3. OHAR METODOLOGIKOAK

Lehen esan dugun bezala, lana neurri handiagoko proiektu baten barnean sartzen da⁷, hau da, galdetegi baten bidez Bizkaiko Hirugarren Sektoreari buruzko informazio kuantitatiboa eta estatistikoki adierazgarria jasotzea ahalbidetu zuen azterlan baten baitan (382 erantzun, gutxi gorabehera 5.959 erakunde biltzen zituen unibertso batentzat).

Lan honetarako, aztergaiarekin bat datorren lagin-zatia aukeratu da, hau da, 178 kasu, ondoren adierazten den bezala sailkatuta, lehen aipatutako jarduera-eremuak (edo azpieremuak)⁸ abiapuntutzat hartuta.

3.1. Taula. HSSaren laginaren banaketa, eremuen arabera. Absolutuak eta ehunekoak.

EREMUAK	2010 urtea: lortutako lagina	
	K	%
Emakumea	19	10,7
Adinekoak	26	14,6
Etorkinak	7	3,9
Enplegua	11	6,2
Gizarte Ekintza	75	42,1
Osasuna	40	22,5
GUZTIRA	178	100

HSSaren unibertsoa zehaztasun handiz ezagutzen ez badugu ere, pentsatzekoa da laginaren tamaina ez dela aski datuak estrapolazeko aztergai egondako biztanleria osoarentzat, estatistikoki onargarria den fidagarritasun maila batez. Hori esanda, 178 kasuren azterketak ekarpen esanguratsutzat jo daiteke Bizkaiko Hirugarren Sektorearen ezagutzarako.

Informazioaren tratamendua eta analisisia SPSS-WIN programa estatistikoaz egin da, egokitatzat jo diren formula estatistiko guztien erabilera bermatzeko xedez.

Datuen interpretazio egokia egin ahal izateko, gogoan izan behar dugu, gainera, datu desagregatuek -jarduera-eremuaren arabera, figura juridikoaren arabera, eta abar- aldagai batzuen jokabidea esplika dezaketela edo jokabide horien inguruko argibideak eman, baina hori zuhurtziaz hartu behar dela, lanean erabilitako laginaren tamaina txikiagatik.

Beste alde batetik, “erantzunik ez” deritzan indizea galdera bakoitzaren arabera aldatzen da, eta, hortaz, aztertutako kasuen kopurua ez da beti bat etortzen laginaren osoko kopuruarekin (178). Datuak desagregatzen direnean, kasu kopurua txikiegia bada ez da konklusio frogaturik atera behar horietatik.

7 Metodologiari buruzko informazio zabalagoa kontsulta daiteke “Bizkaiko Hirugarren Sektorearen 2010eko Urtekariaren” proiektuan, webgune honetan argitaratuta baitago: www.3sbizkaia.org.

8 Aurrerantzean, horiek guztiak Hirugarren Sektore Sozialaren eremutzat hartuko ditugu.

Taula eta grafikoek aztertutako kasuen kopurua hartzen dute barne, parentesi artean jarritako ohar batean, horri buruzko erreferentzia bezala.

Txosten honetan, HSSaren oraingo egoera deskribatzeko esanguratsuentzat hartu diren taula eta grafikoak sartu dira; garrantzi txikiagoko taulak, berriz, eranskinean sartu dira, irakurketa ez trabatzeko.

4. IDENTITATEA ETA JARDUERA

KOPURUA ETA OINARRIZKO SAILKAPENA

Erakunde gehienek (87,6%) “elkartearen” figura juridikoa hartzen dute; fundazioak, berriz, % 6,7 dira, eta erakundeen % 5,7 beste figura juridiko batzuen bidez eratzen dira.

Hirugarren Sektorearen datu orokorrek banaketa berdintsua erakusten dute, baina fundazioen eta beste figura juridiko batzuen pisua handiagoa da HSSn (% 12,4 azken horretan eta % 3,9 bestean).

4.1. Taula. Laginaren banaketa figura juridikoaren arabera. Ehunekoak eta absolutuak.

FIGURA JURIDIKOA	Azkeneko lagina		Azkeneko lagina %
	Elkartea	156	87,6
	Fundazioa	12	6,7
	Merkataritza-sozietatea	5	2,8
	Gizarte ekimeneko kooperatiba	3	1,7
	Kongregazio erlijiosoa	1	0,6
	Kooperatiba	1	0,6
	GUZTIRA	178	%100

KOKAPENA

Erakunde gehienak Bilbo Handia eskualdean kontzentratzen dira (% 90,4); eskualde horretan dagoen kontzentrazio maila handiagoa HSSn Hirugarren Sektore orokorraren kasuan baino (% 75,2).

Joera hori eremu guztietan errepikatzen da, nahiz eta Emakumeen, Adineko Pertsonen eta Etorkinen erakundeek presentzia handiagoa duten beste eskualde batzuetan.

4.2. Taula. Laginaren banaketa kokapen geografikoaren arabera -Eustat eskualdeak- eta jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak eta absolutuak.

	Aratia- Nerbioi	Duran- galdea	Enkarterri	Bustu- rialdea	Bilbo Haundia	Lea- Artibai	Uribe- Butroe	
HSS [K=178]	0,6	3,4	2,8	1,7	90,4	0,0	1,1	
EREMUAK [K=178]	Emakumea	0,0	5,3	10,5	5,3	78,9	0,0	0,0
	Adinekoak	4	11,5	3,8	0,0	80,8	0,0	0,0
	Etorkinak	0,0	14,3	0,0	0,0	85,7	0,0	0,0
	Enplegua	0,0	0,0	0,0	0,0	100	0,0	0,0
	Gizarte Ekintza	0,0	1,3	1,3	1,3	93,3	0,0	2,7
	Osasuna	0,0	0,0	2,5	2,5	95	0,0	0,0

Fundazioen eta elkartek ez diren figura juridikoen pisua apur bat handiagoa da HSSn.

Erakundeen % 90,4 Bilbon Handian kontzentratzen da.

KOLEKTIBO HARTZAILEAK, JARDUERAK ETA PERTSONA ERABILTZAILEAK


Erakundeen jardunaren **hartaileak kolektibo** asko eta askotarikoak dira, baina bereziki nabarmentzen dira emakumeak, familiak, adineko pertsonak, etorkinak, gazteak eta pobrezia edo bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak.

Gainera, erakundeen erdiek biztanleria orokorrarengana zuzentzen dute beren jarduna.

Erakundeen erdiek biztanleria orokorrarengana zuzentzen dituzte beren jarduerak.

4.1. Grafikoa. Kolektibo bakoitzarengana zuzentzen diren erakundeen proportzioa.

Ehunekoak.



Erakundeek garatzen dituzten **jarduerai** dagokienez, lautatik ia hiruk (% 72,9) diote informazio eta orientazio zereginak garatzen dituztela. Bigarren postuan, aisialdiko jarduerak nabarmentzen dira (% 61,6), eta gero datoz prestakuntza-jarduerak (% 53,1) eta iritzi publikoa sentsibilizatzeko jarduerak (% 52).

Datu horiek desberdintasun batzuk adierazten dituzte Hirugarren Sektorearen datu orokorren aldean, zeren bertan aisialdia baita jarduera nagusia (% 60,1).

Jarduera-eremuen araberako azterketak desberdintasun batzuk adierazten ditu:

- Emakumeen alorrean, erakunde gehienek gauzatzen dituzten jarduerak eremu hauetakoak dira: informazioa eta orientazioa, aisialdia eta prestakuntza.
- Adinekoen kasuan, aisialdiarekin zerikusia duten jarduerak nabarmentzen dira, eta baita informazio eta orientazio jarduerak ere.
- Etorkinen eremuan, jarduera nagusiak sorkuntza kulturala eta elkarrenganako laguntza dira.
- Enpleguaren eremuan, laneratzea eta prestakuntza gailentzen dira.
- Gizarte Ekintzan, informazioa eta orientazioa, eta aisialdia.
- Osasunaren alorrean, informazioa eta orientazioa, eta elkarrenganako laguntza.

Gizarte zerbitzuen berezko zereginak betetzeari dagokionez, hauxe azpimarratu behar da:

- Erakundeen erdiek baino gehiagok (% 51,9) diote beren jardueraren xedea mendetasun-egoerak atenditzea eta autonomia sustatzea dela. Gizarte Ekintzaren eta Osasunaren erakundeak dira, batez ere, horrelako egoerak atenditzen dituztenak.
- % 69,1k bazterketa-egoeretara eta gizarteratzearen sustapenera zuzentzen du bere jarduna. Etorkinen eta Gizarte Ekintzaren alorreko erakundeak dira horrelako egoerak gehien atenditzen dituztenak.
- Erakundeen % 42,7k dio babesgabetasun egoerak atenditzen dituela, eta ehuneko hori nabarmenki igotzen da Gizarte Ekintzaren eta Osasunaren alorreko erakundeetan.

Bazterketa, mendetasun edo babesgabetasun egoerak atenditzen dituzten erakundeen proportzioa Hirugarren Sektorekoa baino nabarmenki handiagoa da.

Espero zen bezala, egoera horietako edozein atenditzen duten erakundeen proportzioa askoz ere handiagoa da HSSaren barnean, Hirugarren Sektore orokorrekin alderatuta (% 31,5; % 47,2 eta % 31,2, hurrenez hurren).

4.3. Taula. Beren jarduera mendetasun, bazterketa edo babesgabetasun egoerak atenditzera zuzentzen duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.

	Mendetasun egoerak atenditzea eta autonomia sustatzea	Bazterketa egoerak atenditzea eta gizarteratze-lana sustatzea	Babesgabetasun egoerak atenditzea
HSS	51,9	69,1	42,7
EREMUAK	Emakumea	33,3	15,4
	Adinekoak	23,5	17,6
	Etorkinak	0,0	0,0
	Enplegua	28,6	14,3
	Gizarte Ekintza	69,5	56,4
	Osasuna	54,8	57,1
	[K=133]	[K=136]	[K=124]

Bukatzeko, jasotako datuek erakusten dute erakundeek 701 **pertsona erabiltzaile** dituztela, batez beste. Dena dela, komenigarria da datu hori zuhurtziaz interpretatzea, beraren kalkulurako kontsideratu diren errealitateen heterogeneotasun handiagatik eta kontzeptua bera definitzeak duen konplexutasunagatik.

Beren jarduera Enplegu, Gizarte Ekintza eta Osasunaren alorretan gauzatzen duten erakundeek pertsona erabiltzaile gehiago dituzte, batez beste.

JARDUERA-EREMU GEOGRAFIKOA


Erakundeek % 37,5ek Lurralde Historikoan jarduten du. Jarduera-eremu lokalagoa (eskualde, udalerria edo txikiagoa) duten erakundeek proportzioa, berriz, %24,9 da, Hirugarren Sektorearen proportzio orokorraren antzekoa.

Lurralde Historikoaren eremuan soilik jarduteko joera ohikoagoa da Gizarte Ekintzaren alorreko erakundeetan.

Beste alde batetik, beren jarduerarekin EAE osora iristen diren erakundeak % 4,5 soilik izan arren, erakundeek % 32,9k EAEko mugak gainditzen ditu; Hirugarren Sektorearen kasuan, berriz, beren jarduerarekin eremu hori gainditzen duten erakundeak askoz ere gutxiago dira (% 20).

Erakundeek % 62,4k Bizkaian jarduten du. Lurralde Historikoan (% 37,5), edo horren azpiko eremu batean (% 25).

4.2. Grafikoa. Erakundeek banaketa jarduera-eremu geografikoaren arabera. Ehunekoak.



[K=176]


ANTZINATASUNA

Erakundeek batez besteko adina 15 urte dira. Datu hori oso antzekoa Hirugarren Sektore orokorraren datuarekin (14 urte).

10 eta 20 urte bitarteko antzinatasuna duten erakundeak dira ugariak (% 34,3). Talde horren ostean, 20 urtetik gorako antzinatasuna duten erakundeak dazoz (% 26,8). Nolanahi ere, azpimarratzekoa da bost erakundetatik batek gehienez bost urteko antzinatasuna duela.

10-20 urteko antzinatasuna duten erakundeak erakunde guztien herenak dira, eta 10 erakundetatik ia 4k 10 urte baino gutxiago dituzte.

4.3. Grafikoa. Erakundeen banaketa antzinasunaren arabera. Ehunekoak.



ERAKUNDEAREN JARDUNA INSPIRATZEN DUTEN PRINTZPIOAK


Hamar erakundetatik seik printzipio etiko edo filantropikoetan oinarritzen dute beren jarduna.

Hamar erakundetatik seik printzipio etiko edo filantropikoetan oinarritzen dute beren jarduna.

% 18,6k dio printzipio ideologikoetan inspiratzen dela, eta % 13,8k printzipio erlijioso kristauetan.

Ez da desberdintasun esanguratsurik antzematean Hirugarren Sektorearen datu orokorren aldean.

4.4. Grafikoa. Erakundeen banaketa beren jarduna inspiratzen duten printzipioen arabera. Ehunekoak.




Erakundeen % 23,7k dio baduela idatzizko barne-kode etikoa, bere jarduera ulertzeko eta garatzeko modua bideratzen duena.

Ehuneko hori Hirugarren Sektorearen proportzio orokorra (% 17,1) baino handiagoa da.

Kode etikoa dutela dioten erakundeek ehunekoak Hirugarren Sektorekoa baino handiagoa da.

4.5. Grafikoa. Erakundeetan kode etikoa egotea. Ehunekoak.



[K=152]

5. ERAKUNDEEN EGITURA

GOBERNU-ORGANOAK

Gobernu-organoekin zerikusia duten datu gehienak nahiko antzekoak dira Hirugarren Sektore orokorraren datuekin.


Gobernu-organoen eginkizunak erakundearen misioaren betetze mailaren jarraipena egitea eta baliabideen asignazioa kontrolatzea dira, besteak beste.

Erakundeen erdien gobernu-organoek eta hiru fundaziotatik baten gobernu-organoek 6 eta 10 kide bitarte dituzte.

Elkarteen erdien gobernu-organoek (% 50,3) eta hiru fundaziotatik ia baten gobernu-organoek 6 eta 10 kide bitarte dituzte. Beste alde batetik, baina, fundazioen erdiek eta elkarteen herenek baino apur bat gehiagok 6 kide baino gutxiago dituzte beren batzordean.


Fundazioen %16,7ren eta elkarteen %11,2ren gobernu-organoak legeak ezartzen dituen gutxieneko kide kopurua dute (hiru pertsona), edo gutxiago.

5.1. Grafikoa. Erakundeen banaketa zuzendaritza-batzordean eta patronatu-batzordean duten kide kopuruaren arabera. Ehunekoak.



Gobernu-organoetako kideak berriztatzeari dagokionez, fundazioen erdiek eta elkarteen % 39,2k ez zuten kide berririk sartu beren gobernu-taldean, azken aldiz berriztatu zirenean. Kontrako muturrean, elkarteen % 8,8k zuzendaritza-batzordeko kide guztiak aldatu zituen.

5.2. Grafikoa. Erakundeen banaketa zuzendaritza-batzordeko eta patronatu-batzordeko kide berrien pisuaren arabera. Ehunekoak.




Gobernu-organoak osatzen dituzten kide gehienak erakundearen gobernuari lotutako zereginetan soilik aritzen dira.

Hala eta guztiz ere, zuzendaritza-batzordeen % 20,4k eta patronatu-batzordeen %25k badituzte pertsonak, batzordeko kideak izateaz gain soldatako lana ere egiten dutenak erakundeetan. Proportzio hori Hirugarren Sektore orokorrean baino apur bat handiagoa da: %15,4 zuzendaritza-batzordeetan eta %16,7 patronatu-batzordeetan.

Gobernu-organoetako kide gehienak gobernu-zereginetan soilik aritzen dira.

5.3. Grafikoa. Erakundeen banaketa zuzendaritza-batzordean eta patronatu-batzordean rol bikoitza duten kideen pisuaren arabera. Ehunekoak.



Patronatu-batzorde gehienak (% 58,3) sei hiletik behin biltzen dira; zuzendaritza-batzordeen kasuan, ohikoagoa da hilean behin biltzea (%48,4). Bileraren maiztasuna handiagoa izaten da erakundeak soldatako pertsonalik ez duenean.


DEMOKRATIZAZIOA: OINARRI SOZIALA ETA PERTSONEK ERAKUNDEAN DUTEN INPLIKAZIOA

Erakundeek 374 bazkide dituzte, batez beste. Nahiz eta desbiderapen estandarrak islatzen duen badirela errealitate desberdinak laginaren barruan, orokorrean esan daiteke oinarri sozial handiagoa dutela Hirugarren Sektore orokorreko erakundeek baino, kasu horretan 271 pertsona baitira, batez beste, erakundeek dituzten bazkideak.

Erakundeen % 51,9k 100 bazkide baino gehiago ditu; Hirugarren Sektore orokorrean, berriz, talde horren pisua % 40,7 da.

HSSko elkarteek oinarri sozial handiagoa dute Hirugarren Sektoreko beste batzuek baino. % 51,8k 100 bazkide baino gehiago ditu, eta % 53,6k bazkideen bolumena igo du azken 3 urteetan.

5.4. Grafikoa. Elkarten banaketa bazkide diren pertsonen bolumenaren arabera. Ehunekoak.




Jarduera-eremuari begiratuz gero, bazkideen batez bestekoa handiagoa da Enpleguaren alorrean, eta gero Adineko Pertsonen alorrean. Etorkinen alorreko erakundeek, aldiz, bazkideen batez besteko kopuru txikiena dute.

Azterlanak erakutsi duenez, elkarteen % 6,8ko bazkideen kopurua gobernu-organotako kideen kopuru berdina da.

Elkarteen % 53,6k bere bazkideen bolumena igo du azken 3 urteetan. % 37,1ek dio bere oinarri sozialari eutsi diola, eta % 9,3k dio bazkideak galdu dituela azken hiru urteetan.

5.5. Grafikoa. Elkarteen banaketa, bazkideen kopuruan azken 3 urteotan izandako bilakaeraren arabera. Ehunekoak.




Datu horiek Hirugarren Sektorearen datu orokorrekin alderatzen baditugu (erakundeen % 13,5k jaitsiera izan du bazkideen kopuruan), pentsatzekoa da bazkideen galerak eragin txikiagoa izan duela HSSko erakundeetan.

Erakundeen ia erdiak boluntariora-erakundeak dira, eta kasuen % 80,7an boluntarioak soldatako pertsonak baino gehiago dira.


Boluntarioen presentziari dagokionez, esan daiteke erakundeen %45,2 boluntarioz soilik osatuta dagoela (Hirugarren Sektore orokorrean, erakundeen % 59,6); bestalde, kasuen % 80,7an boluntario gehiago daude soldatako pertsonak baino (hori kasuen % 89,8an gertatzen da Hirugarren Sektore orokorrean).

5.6. Grafikoa. Erakundeen banaketa boluntarioek osoko pertsonalean duten pisuaren arabera. Ehunekoak.



Eremuz eremu, boluntarioz soilik osatutako erakundeen proportzioa handiagoa da Adineko Pertsonen eremuan, eta txikiagoa Enpleguaren eremuan.

5.7. Grafikoa. Elkarteen banaketa boluntarioek osoko pertsonalean duten pisuaren arabera, jarduera-eremua irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.



Interes-taldeek erakundean duten parte-hartzeari dagokionez, ez da desberdintasun handirik antzematen HSSko eta Hirugarren Sektore orokorreko erakundeen artean.

Pertsona erabiltzaileek osatzen dute parte-hartze maila txikiena duen kolektiboa. Erakundeek diotenez, kolektibo hori gehien inplikatzan duen zeregina jardueren ebaluazioa da, baina hori egiten dutenak % 31,2 baino ez dira.

Erakundeen % 70ek baino zertxobait gehiagok dio bere gobernu-organoak parte hartzen duela erakundearen jardueraren plangintzan, eta ia %69k dio beraren ebaluazioan ere parte hartzen duela. Gainera, % 74,4k dio erakundearen orientazio orokorrean parte hartzen duela.

Boluntario egonkorrek gai horietan duten parte-hartzea gobernu-organoetako ki-deena baino txikiagoa da. Erakundeen % 46k boluntario egonkorrak inplikatzan ditu erakundearen jardueraren plangintzan, eta % 48,4k beraren ebaluazioan.

Soldatako pertsonalak erakundearen plangintzan eta beraren jardueraren ebaluazioan duen parte-hartzea lehengo bi kolektiboena baino apur bat handiagoa da; dena dela, erakundearen orientazio orokorrean duten inplikazioa gobernu-organoena baino txikiagoa da.

Pertsona erabiltzaileek osatzen dute parte-hartze maila txikiena duen kolektiboa.

ERAKUNDEEN TAMAINA, PERTSONALAREN BOLUMENA ETA BOLUMEN EKONOMIKOA OINARRITZAT HARTUTA


Erakundeak 49 pertsonaz osatuta daude, batez beste (soldatakoak eta/edo boluntarioak). Horrek esan nahi du, oro har, haien tamaina Hirugarren Sektoreko gainerako erakundeena baino handiagoa dela; izan ere, Hirugarren Sektorearen batez besteko orokorra 40 pertsona dira.

Erakundeak 49 boluntarioz eta/edo soldatako pertsonaz osatuta daude, batez beste.

Garrantzitsua da medianak adierazten duena kontuan hartzea, alegia, 15 kide baino gehiago dituzten erakundeek kopurua eta 15 kide baino gutxiago dituztenen antzekoa dela; gehien errepikatzen den kasua 6 pertsonaz osatutako erakundeak dira.

Erakundeek % 7,8k 100 pertsona baino gehiago ditu, eta % 30,1ek 10 baino gutxiago; ohikoena (% 48,8) da 10 eta 50 pertsona bitarteko izatea.

5.8. Grafikoa. Erakundeek banaketa, pertsonalaren bolumenaren arabera. Ehunekak.




Desberdintasuna ez da oso handia Hirugarren Sektore orokorraren datuen aldean; nolahi ere, esan daiteke 51 eta 100 pertsona (boluntarioak eta/edo soldatakoak) bitarteko erakundeek taldeak pisu handiagoa duela (% 13,3 HSSan eta % 8,9 Hirugarren Sektore orokorrean).

Erakunde txikiak kopurua handiagoa da Adineko Pertsonen eta Etorkinen eremuetan.

Adineko Pertsonen eta Etorkinen eremuek erakunde txiki (10 pertsona baino gutxiago) gehiago dituzte; pertsonalaren bolumenaren arabera erakunde handi (100 pertsona baino gehiago) gehien dituzten eremuek, berriz, Enplegua eta Gizarte Ekintza dira.

5.9. Grafikoa. Erakundeek banaketa pertsonalaren bolumenaren eta jardueraren arabera. Ehunekak.



Erakundeek diru-sarrerak 404.814 euro dira, batez beste, baina horien erdiek 26.300 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte.


Erakundeek batez besteko diru-sarrerak 404.814 euro dira. Dena dela, oso aldakortasun handia antzematen denez -askotariko errealitateak-, komenigarria da beste estatistiko batzuek ematen duten informazio gehigarria kontuan hartzea, errealitatea zorroztasun handiagoz interpretatzeko. Hala, medianak adierazten du erakundeek erdiek 26.300 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztela, eta gehien errepikatzen den zenbatekoa (moda) 12.000 euro dela.

Orokorrean, ikus daiteke HSSko erakundeek diru-sarrera handiagoak dituztela Hirugarren Sektore orokorreko erakundeek baino (horien mediana 14.572 euro da).

Erakundeen % 31,1k dio 12.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituela (% 46, Hirugarren Sektore orokorrean), eta % 55,3k 60.000 eurotik beherako diru-sarrerak (% 76,2, Hirugarren Sektore orokorrean).

Kontrako muturrean, ikus daiteke erakundeen % 10,5ek 1.500.000 eurotik gora-ko diru-sarrerak dituela (% 6,4, Hirugarren Sektore osoan).

5.10. Grafikoa. Erakundeen banaketa 2009ko diru-sarreraren bolumenaren arabera. Ehunekoak.



[K=161]

Bai batez bestekoak eta bai medianak bereziki handiak dira Enpleguaren eta Gizarte Ekintzaren alorretan; txikiak, aldiz, Etorkinen eta Emakumearen eremuak dira.

Diru-sarrera txikiak dituzten erakundeak emakume, adineko pertsona eta etorkinen erakundeak dira.

5.1. Taula. 2009ko diru-sarreraren bolumena, jarduera-eremuaren arabera. Oinarrizko deskribatzaileak.

		Batez bestekoa	Desbiderapen estandarra	Moda	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
HSS [K=100]		404.814,3	26.300	12.000	891.436,6	0	5.000.000
EREMUAK [K=100]	Emakumea	12.710,3	15.714,7	80	7.000	80	46.292
	Adineko pertsonak	17.380,6	15.359,3	12.000	14.063,5	3.300	57.272
	Etorkinak	16.675	26.723,9	300	5.100	300	56.200
	Enplegua	1.026.685,2	1954667,4	10.849	279.631	10.849	5.000.000
	Gizarte Ekintza	698.657,8	1.032.039,5	12.000	191.311	1.000	3.880.000
	Osasuna	196.456,9	455.140,8	0	15.000	0	1.700.000

6. PERTSONAK

PERTSONA BOLUNTARIOAK

Ia erakunde guztiek (% 98,9) pertsona boluntarioak dituzte⁹, eta hamarretatik lau baino gehiago pertsonal boluntarioz soilik daude osatuta.


Horri buruzko informazioa eman duten 166 erakundeek 4.141 boluntario dituzte guztira, hau da, batez beste 25 boluntario erakunde bakoitzeko.

Honi buruzko informazioa eman duten 116 erakundeek 4.141 boluntario biltzen dituzte, guztira.

Erakunde bakoitzak 25 boluntario ditu, batez beste (28, Hirugarren Sektore orokorrean). Dena dela, modak adierazten du ohikoena dela 6 boluntario izatea.

Hain zuzen ere, erakundeen %44k 10 boluntario baino gutxiago ditu, % 45,8k 10 eta 50 boluntario bitartean, eta erakundeen %10,2k 50 boluntario baino gehiago ditu. Hirugarren Sektoreko datu orokorrek ez dute desberdintasun nabarmenik adierazten.

6.1.Grafikoa. Boluntarioak dituzten erakundeen banaketa, boluntarioen kopuruaren arabera. Ehunekoak.




[K=166]

Pertsonal boluntarioaren bolumena asko aldatzen da eremuen arabera. Enpleguaren eta Adineko Pertsonen eremuetan, handiagoa da 10 boluntario baino gutxiago dituzten erakundeen proportzioa. Gizarte Ekintzaren eremuan, aldiz, oso handia da pertsona boluntarioak dituzten erakundeen bolumena.

9 Boluntarioei buruzko Euskal Legeak honela definitzen du boluntariotza: “pertsona fisikoek gauzatzen dituzten interes orokorreko ekimenak, baldin eta modu desinteresatuan, elkartasunez eta askatasunez gauzatzen badituzte, lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremanak behartuta egon gabe, edo betebehar pertsonal edo juridikoren batek behartuta egon gabe; gainera, jarduera ordainsari ekonomikorik gabe gauzatzen da, irabazi-asmorik gabeko erakundeen bitartez, soldatako zerbitzu profesionalik ordezkatu gabe».

6.2. Grafikoa. Boluntarioak dituzten erakundeen banaketa, pertsona boluntarioen bolumenaren eta jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.




[K=166]

Boluntarioen % 47,5ek 50 urte baino gehiago ditu, eta % 24,1ek erretiro-adina gainditzen du. 36 urte baino gutxiago dutenak boluntarioen % 27,9 dira.

Orokorrean, boluntarioen adina Hirugarren Sektoreko boluntarioena baino zertxobait handiagoa da; izan ere, Hirugarren Sektoreko boluntarioak gazteagoak dira eta erretiro-adinera iritsi diren pertsonak gutxiago dira hor. Horren arrazoia, neurri batean, Adineko Pertsonen eremuak HSSan duen pisu handiagoa da.

Boluntario gazteenek (36 urte baino gutxiago) eta nagusienek (65 urte baino gehiago) ia ehuneko berdina dute.

6.3. Grafikoa. Boluntarioen banaketa adinaren arabera. Ehunekoak.




[K=108]

Adineko Pertsonen erakundeetan aritzen diren pertsona boluntarioen % 77,1ek 65 urte baino gehiago ditu. Boluntario gazteen proportzio handiena, berriz, Gizarte Ekintzako erakundeetan aurkitzen dugu.

Ohikoena da pertsona boluntarioek 5 urte eramatea beren zereginak betetzen.

Ohikoena da pertsona boluntarioek 5 urte baino gehiago eramatea beren zereginak betetzen (% 42,3); hala eta guztiz ere, boluntarioen % 31,7k 2 urte baino gutxiago daramatza erakundearekin kolaboratzen; proportzio hori % 28,5 da Hirugarren Sektore orokorrean.

6.4. Grafikoa. Boluntarioen banaketa beren antzintasunaren arabera. Ehunekoak.




HSSko boluntarioek Hirugarren Sektore orokorrekoek baino maiztasun handiagoz parte hartzen dute, batez beste.

Boluntarioek erakundeari dedikatzen dizkieten orduak begiratzuz gero, hauxe ikus daiteke: boluntarioen %37,3k noizean behin kolaboratzen du, eta boluntarioen % 18k hamar ordu baino gehiago dedikatzen ditu astean.

Dirudienez, HSSko erakundeen boluntarioek maiztasun handiagoz parte hartzen dute -batez beste- Hirugarren Sektoreko erakundeek oro har egiten dutena baino; izan ere, Hirugarren Sektore orokorrean, noizbehinkako boluntarioen indizea % 46raino igo-tzen da, eta astean 10 ordu baino gehiago dedikatzen dutenak % 9,3 dira.


6.5. Grafikoa. Boluntarioen banaketa, dedikazioaren maiztasunaren arabera. Ehunekoak.



Jarduera-eremuen araberrako azterketak erakusten duenez, Etorkinak eta Osasuna dira noizbehinkako boluntarioen pisu erlatibo handiagoa dutenak, batez beste.

HSSko pertsona boluntarioen % 55 inguru esku-hartze zereginetan aritzen da, edo zerbitzuen hartzaileei eskaintzen zaizen zuzeneko arretan. Kopuru hori Hirugarren Sektore osoaren boluntarioena (% 38,5) baino askoz ere handiagoa da.


6.6. Grafikoa. Boluntarioen banaketa eginkizunen arabera. Ehunekoak.



Beste alde batetik, erakundeek herenak diote beren boluntarioen bolumenak gora egin duela azken hiru urteetan; % 13,1ek, aldiz, behera egin duela dio. Hirugarren Sektore orokorrean, igoera apur bat handiagoa izan da (% 34,4), baina beren boluntarioen bolumena jaitsi dela dioten erakundeek proportzioa zertxobait handiagoa da (% 16,6 Hirugarren Sektore orokorrean eta % 13,1 HSSan).

Pertsona boluntarioen kopuruak gora egin du azken hiru urteetan.

6.7. Grafikoa. Erakundeek banaketa, pertsona boluntarioen bolumenak azken 3 urteetan izandako bolumenaren arabera. Ehunekoak.



Emakumearen eremuko erakundeak dira beren boluntarioen bolumena gehien igo dutenak, eta Adineko Pertsonen eremukoek jaitsiera handiena izan dutenak.

SOLDATAKO PERTSONALA

Adierazi den bezala, erakundeek %56,2k gutxienez pertsona bat du kontratatuta.

Horren inguruko informazioa eman duten 99 erakundeek 4.099 soldatako pertsona biltzen dituzte, guztira.

Erakundeek 41,4 pertsona dituzte kontratatuta, batez beste, eta % 56,29k gutxienez pertsona bat du kontratatuta.

Erakundeek 41,1 pertsona dituzte kontratatuta, batez beste, baina datuek oso desberdintasun handiak islatzen dituzte erakundeek artean, hainbestearino non gomendagarria den beste estatistiko batzuk izatea, sektorean benetan kontratatuta dagoen pertsonalaren bolumena modu egokian interpretatzeko. Hala, medianaren balioak adierazten du erakundeek erdiek 6 pertsona edo gutxiago dituztela kontratatuta eta beste erdiek 6 pertsona baino gehiago. Gainera, modak adierazten du ohikoena dela erakundeek pertsona bat izatea kontratatuta.


Kontratatutako pertsonen presentzia handiagoa da Hirugarren Sektore orokorrean baino.

Datu horiek adierazten dutenez, pertsona kontratatuek presentzia handiagoa dute HSSko erakundeetan Hirugarren Sektore orokorreko erakundeetan baino; izan ere, azken horretan, pertsona boluntarioz soilik osatutako erakundeak % 60 dira, soldatako pertsonala duten erakundeen pisu erlatiboak ia % 5 txikiagoa da, eta kontratatutako pertsonen batez bestekoa 28 ingurukoa da.

Jarduera-eremuaren arabera, Enpleguaren eta Gizarte Ekintzaren eremuetako erakundeek soldatako pertsonal gehiago izan ohi dute; Adineko Pertsonen edo Etorkinen eremuetan, berriz, haien presentzia askoz ere txikiagoa da.

HSSn, ohikoena da erakundeek 3 eta 10 pertsona bitarte izatea kontratatuta, sektoreko gainerako erakundeek bezala. Dena dela, 50 pertsona baino gehiago dituztenak % 12,2 dira HSSn, eta % 8,3 Hirugarren Sektore orokorrean; halaber, pisu handiagoa dute erakunde ertainek, hau da, 11 eta 50 soldatako pertsona bitarte dituztenek: % 28,3 HSSn eta % 20,5 Hirugarren Sektore orokorrean.


6.8. Grafikoa. Soldatako pertsonala duten erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenaren arabera. Ehunekak.



Soldatako pertsonalaren % 16,9k soilik ditu 50 urte baino gehiago.

Soldatako pertsonalaren adinari dagokionez, %43,8k 36 urte baino gutxiago ditu, eta %16,9k 50 urte baino gehiago. Kopuru horiek oso antzekoak dira Hirugarren Sektorearen kopuru orokorrekin.


6.9. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa adinaren arabera. Ehunekak.



Pertsonalaren % 35,1ek bi urte edo gutxiago daramatza erakunde berean lan egin, eta ia proportzio berdina (% 36,8) gutxienez bost urtez aritu da.

Datuek ez dute aldaketa esanguratsurik adierazten Hirugarren Sektoreko kopuru orokorren aldean.

6.10. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa antzintasunaren arabera. Ehunekoak.




[K=99]

Kontrataturako pertsonen % 64,3k kontratu finko edo mugagabea du, eta % 29,6k aldi baterako kontratua edo obra jakineko kontratua du. Aldi baterako lanaren indizea, bi datu horiek erlazionatzen dituena, % 31,5 da. Indize hori Hirugarren Sektorearen indize orokorra baino apur bat txikiagoa da, urte horretan % 32,4¹⁰ izan baitzen, baina Bizkaiko batez besteko indizea baino handiagoa -2009an % 18 izan zen¹¹.

Pertsonalaren gehiengoa (% 89,5) lanaldi osoan dago kontratatuta, eta % 64,3k kontratu finko edo mugagabea du. Dena dela, aldi baterako kontratazioaren indizea (% 31,5) Bizkaiko batez bestekoa (% 18) baino handiagoa da.

6.11. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa kontratu motaren arabera. Ehunekoak.



[K=89]


10 Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Urtekaria 2010. Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia. 2011

11 Iturria: http://www.eustat.es/elementos/ele0003300/ti_Poblacion_de_16_y_mas_años_ocupada_por_situacion_profesional_tipo_de_contrato_y_tipo_de_jornada_y_territorio_historico_miles_2009/tblo003335_c.html

Pertsonalaren gehiengoa (% 85,9) lanaldi osorako dago kontratatuta, eta kontratuen % 13,2 lanaldi partzialekoa da.

Proportzio hori bat dator Bizkaiko batez bestekoarekin (% 13,2)¹² eta Hirugarren Sektorearen batez besteko orokorra (% 15,1) baino apur bat txikiagoa da.¹³

6.12. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa lanaldi motaren arabera. Ehunekoak.




Administrazio eta kudeaketaren alorreko pertsonala kontratatutako pertsonal osoaren % 11,6 da; ehuneko hori nabarmenki txikiagoa da pertsonal osoa kontuan hartuz gero.

Administrazioan eta kudeaketan diharduen pertsonala kontratatutako pertsonal osoaren % 11,6 da. Proportzio hori Hirugarren Sektorearentzat erregistratutakoa baino apur bat txikiagoa da.

Kontratutako hamar pertsonatetik ia zortzi zuzeneko esku-hartze edo arretako zereginetan aritzen dira.

6.13. Grafikoa. Soldatako pertsonalaren banaketa eginkizunen arabera. Ehunekoak.



¹² Iturria: http://www.eustat.es/elementos/ele0003300/ti_Poblacion_de_16_y_mas_años_ocupada_por_situacion_profesional_tipo_de_contrato_y_tipo_de_jornada_y_territorio_historico_miles_2009/tblo003335_c.html


¹³ Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Urtekaria 2010. Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia. 2011

Erakundeen % 47k dio bere soldatako pertsonalaren bolumenak gora egin duela azken hiru urteetan, eta % 43,5ek dio mantendu egin duela.

Hirugarren Sektore Soziala intentsiboa da enplegu-sorrerari dagokionez.

Datu horiek Hirugarren Sektorearen datu orokorrekin alderatzen badira -bertan, beren soldatako pertsonala igo dutela dioten erakundeen proportzioa % 36,5 da-, garbi ikus daiteke HSS azpisektore mardula dela enpleguaren sorreraren ikuspuntutik.

6.14. Grafikoa. Erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenak azken 3 urteetan izandako bilakaeraren arabera. Ehunekoak.




[K=115]

Jarduera-eremuaren arabera azterketak erakusten duenez, Enpleguaren alorreko erakundeak dira beren soldatako pertsonala neurri handienez handitu dutenak.

Etorkizunerako aurreikuspenei dagokionez, erakundeen %3,5ek soilik uste du soldatako pertsonala jaitsiko dela datozen urteetan; hamar erakundetatik ia seik uste dute mantendu egingo dela, eta %37,2k gora egingo duela. Azken ehuneko hori Hirugarren Sektorearen ehuneko orokorra baino apur bat handiagoa da soilik.

6.15. Grafikoa. Erakundeen banaketa, soldatako pertsonen bolumenarentzat datozen hiru urteetan aurreikusten den bilakaeraren arabera. Ehunekoak.



[K=113]

Bukatzeko, soldatako pertsonala duten erakundeen ia % 65k dio hitzarmen bati atxikita dagoela (% 62,4, Hirugarren Sektore orokorrean).

Soldatako pertsonala duten erakundeen % 65k dio hitzarmen bati atxikita dagoela.

GENERO KONTUAK

HSSan, Hirugarren Sektore orokorrean gertatzen den bezala, emakumeak gehien-go dira soldatako pertsonen artean (% 68,7), boluntarioen artean (% 64,6) eta bazkideen artean (% 60,6); dena dela, Hirugarren Sektore orokorraren aldean, azpimarratzekoa da emakume boluntarioen presentzia, bertan boluntarioen % 56,6 baitira (8 puntu gutxiago).

6.1. Taula. Boluntarioen, soldatako pertsonalaren, pertsonal osoaren eta bazkideen banaketa sexuaren eta jarduera-eremuaren arabera.

Batez besteko proportzioa.

	Gizonezko boluntarioak	Emakumezko boluntarioak	Soldatako gizonezkoak	Soldatako emakumezkoak	Gizonezko boluntarioak + soldatakoak	Emakumezko boluntarioak + soldatakoak	Gizonezko bazkideak	Emakumezko bazkideak
HSS	35,4	64,6	31,3	68,7	34,0	66,0	39,4	60,6
Emakumea	2,4	97,6	5,6	94,4	2,5	0,5	0,5	99,5
Adineko Pertsonak	64,2	35,8	-	-	64,2	39,5	39,5	60,5
Etorkinak	53,2	46,8	42,9	57,1	52,2	46,6	46,6	53,4
Enplegua	8,8	91,2	48,7	51,3	26,2	36,3	36,3	63,7
Gizarte Ekintza	42,9	57,1	30,1	69,9	37,3	49,9	49,9	50,1
Osasuna	29,6	70,4	20,8	79,2	27,9	32,7	32,7	67,3
	[K=162]		[K=98]		[K=161]		[K=124]	


Beste modu batean, esan daiteke emakumeak boluntarioen gehiengoa direla erakundeen % 60,5ean, soldatako pertsonalaren gehiengoa erakundeen % 77,6an eta bazkideen gehiengoa elkarteetan % 71,2an. Kopuru guztiak Hirugarren Sektore orokorrarentzat erregistratutakoak baino handiagoak dira.

Emakumeen presentzia are handiagoa da HSSn Hirugarren Sektore osoan baino, baina erakundeen gobernu-organoetan duten presentzia ere txikia da.

Hala eta guztiz ere, eta Hirugarren Sektore orokorraren errealitatearekin bat etorriz, datuek erakusten dute emakumeen presentzia txikiagoa dela erakundeen gobernu-organoetan, hau da, sektorean duten presentziagatik legokiekeena baino txikiagoa, batez ere fundazioetan.

Fundazioen % 25ek ez du emakume bat bera ere bere patronatu-batzordean, eta batzordeen % 8,3an soilik dira gehiengoa. Elkarteetan kasuan, berriz, bidezkoagoa da egoera: ikus daitekeenez, kasuen % 43,5ean emakumeak batzordekideen % 50 baino gehiago dira.

6.16. Grafikoa. Erakundeen banaketa, emakumeek gobernu-organoetan duten pisuaren arabera. Ehunekoak.




7. BALIABIDE EKONOMIKOAK

DIRU-SARRERAK

10 erakundetatik 7k baino gehiagok diote beren diru-sarreraren bolumenak gora egin duela 2007 eta 2009 urteen bitartean, eta % 25k inguruk dio behera egin duela. Proportzio horiek oso antzekoak dira Hirugarren Sektoreko erakundeen proportzioekin.

7.1. Grafikoa. Beren diru-sarreraren bolumena 2007 eta 2009 bitartean igo den erakundeen proportzioa. Ehunekoak.



Honi buruzko informazioa eman duten 101 erakundearen artean, 65 milloi euro baino gehiago erabili zituzten; nolanahi ere, aurrekontu horren % 85 14 erakunderi dagokie, talde horrek milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak izan baitzituen.

2007 eta 2009 bitartean, erakundearen diru-sarreraren bolumena %23,9 igo zen, batez beste (2008tik 2009ra, hazkundera %5,8 izan zen, eta 2007tik 2008ra %19); horrek hazkunde ekonomiko mardula adierazten du, baina Hirugarren Sektoreak garai berean izandakoa baino askoz ere apalagoa, beraren hazkundera %47,6 izan baitzen.

Finantziazio-iturrien dibertsifikazioari dagokionez, erakundearen % 16,4k sarrera-iturri bakarra du, eta % 20,5 bi iturriren bidez finantzatzeko da (Hirugarren Sektore orokorrean, zifra horiek % 23,9 eta %22,9 dira, hurrenez hurren). 5 finantziazio-iturri edo gehiago dituzten erakundeak % 28,7 dira (%21,1, Hirugarren Sektore osoan).

Finantziazio-iturri arruntenak Hirugarren Sektoreko iturri berdinak dira. 10 erakundetatik ia 6k partikularren dohaintza erregularrak ditu, eta antzeko proportzio batek jarduera edo funtzionamendurako diru-laguntza publikoak eskuratzen ditu.

Aipatzekoa da zerbitzuen prestaziorako kontratu publikoak edo hitzarmenak finantziazio-iturriak direla HSSko erakundearen %23,8rentzat. Beraz, hor desberdintasun nabaria agertzen da Hirugarren Sektore orokorraren aldean, diru-sarreraren iturri horrek % 14,8ko pisu erlatiboa baitu hor.

Erakundearen diru-sarreraren bolumena modu esanguratsuan hazi da, baina Hirugarren Sektore orokorrean baino neurri apalagoan.

HSSko erakundeek HS osoko erakundeek baino neurri handiagoan dibertsifikatu dituzte beren finantziazio-iturriak.

10 erakundetatik 6k partikularren dohaintza erregularrak dituzte (aldizkako kuotak).

HSSko erakundeen finantziazio-egitura Hirugarren Sektore orokorreko erakundeenaren antzekoa da; dena dela, garrantzi handiagoa dute zerbitzuen prestaziorako kontratu publikoek edo hitzarmenek, aurrezki kutxen gizarte ekintza sailetik datorren finantziazioak, erakunde pribatuen diru-laguntzek eta inbertsioetarako diru-laguntza publikoek.

Ildo beretik, HSSan presentzia berezia dute Aurrezki Kutxen Gizarte Ekintzatik datorren finantziazioak (%27,4 bere kasuan eta %20,3 Hirugarren Sektore orokorrean), erakunde pribatuen diru-laguntzak (%25 vs %16,2) eta inbertsioentarako diru-laguntza publikoak (%13,7 vs %7,2).

7.2. Grafikoa. Diru-sarreraren iturri bakoitza duten erakundearen proportzioa. Ehunekoak.




Erakundearen % 86,1ek finantziazio publikoa jasotzen du, eta erakundearen % 57,1entzat finantziazio publikoa diru-sarreraren % 50 baino handiagoa da.

Eremuen arabera azterketak agerian uzten duenez, bazkideen kuoten bidez gutxienez zati batean finantzatzeko diren erakundearen proportzioa handiagoa da Adineko Pertsonen eta Etorikinen eremuetan; proportzio txikiena, berriz, Enpleguaren eremuari atxikitako erakundeetan aurkitzen dugu.

Beste alde batetik, erakundearen % 86,1ek finantziazio publikoa eskuratu du. Proportzio hori Hirugarren Sektorean aurkitzen dugun proportzio orokorra (% 75) baino nabarmenki handiagoa da. Enplegua (% 100), Adineko Pertsonak (% 94,1) eta Gizarte Ekintza (% 90,9) dira finantziazio mota hori duten erakundeak gehien biltzen dituzten eremuak.

Finantziazio publikoak soilik finantzatzeko diren erakundeak % 11,4 soilik izan arren, beste % 45,7rentzat finantziazio publikoa diru-sarreraren erdia baino gehiago da; beraz, erakundearen % 57,1k (% 54,2, Hirugarren Sektore orokorrean) handitza jo daitekeen mendetasun maila du finantzazio publikoarekin.

7.3. Grafikoa. Finantziazio publikoa duten erakundeen banaketa, finantziazio publikoak diru-sarreraren osoko zenbatekoan duen pisuaren arabera. Ehunekoak.



[K=105]

Diru-sarreraren iturri bakoitzak osoko zenbatekoan duen pisua aztertzean, ikus dezakegu HSSan pisu handiagoa duela finantziazio publikoak (% 53) pribatuak (% 47) baino; horren aldean, Hirugarren Sektorearen errealitate orokorra oso bestelakoa da, zeren finantziazio pribatua % 55,8 baita bertan.


Pisu erlatibo handiena duten finantziazio-iturriak berdinak dira HSSn eta Hirugarren Sektore orokorrean, alegia, diru-laguntzak eta partikularren aldizkako kuotak.

HSSko erakundeen finantziazioaren egituraren berezitasuna honetan datza gehienbat:

- zerbitzuen prestaziorako kontratu publikoek eta hitzarmenek pisu berezia dute (% 14,7 vs % 7,6);
- bazkideen aldizkako kuotek pisu txikiagoa dute (% 19,9 vs % 25).

HSSko erakundeen finantziazio-egituraren berezitasuna da zerbitzuen prestazioek berebiziko pisua dutela, eta kuotek garrantzi txikiagoa.

7.4. Grafikoa. Diru-iturri bakoitzak diru-sarreraren osoko zenbatekoan duen pisu erlatiboa. Batez besteko proportzioa.



[K=122]

Eremuen arabera azterketak desberdintasun batzuk islatzen ditu. Hala, finantziazio publikoak pisu are handiagoa hartzen du Gizarte Ekintzako erakundeetan (%62), batez ere zerbitzuen prestaziorako kontratu publikoen garrantziagatik. Bigarren postuan, Adineko Pertsonen erakundeak daude (%58,9), horiek jarduerarako diru-laguntzen bidez finantzatzeko baitira gehienbat.


Finantziazio publikoak pisu handiagoa hartzen du Gizarte Ekintzako erakundeen artean, kontratu eta hitzarmenen eraginez.

HSSaren kasuan, finantziazio-iturri nagusia Bizkaiko Foru Aldundia, eta hortik gertu Udalak (% 31,3) -Hirugarren Sektore orokorraren iturri nagusia- eta Eusko Jaurlaritza (% 30,9) daude.

Finantziazio pribatua ohikoagoa da Emakumearen eremuan (%69,6) eta Etorkinen eremuan (%67). Bi kasu horietan, azpimarragarria da bazkideen dohaintza erregularren pisua.

Hirugarren Sektore orokorrean ez bezala -bertan, udalak dira finantziazio-iturri nagusia-, HSSan Bizkaiko Foru Aldundia da finantziazio-iturri esanguratsuena, finantziazio publikoaren % 34,7 ematen baitu. Nolanahi ere, udalen (% 31,3) eta Eusko Jaurlaritzaren (% 30,9) pisua ere garrantzitsua da.

7.5. Grafikoa. Finantziazio publikoaren iturri bakoitzak finantziazio publikoaren osoko zenbatekoan duen pisu erlatiboa. Batez besteko proportzioa.




Eremuen arabera azterketak Eusko Jaurlaritzaren presentzia handiagoa erakusten du Enpleguaren alorrean; foru-finantziazioak, berriz, pisu handiagoa du etorkinen elkarteetan. Halaber, badirudi udal finantziazioak garrantzi handiagoa duela Adineko Pertsonen eremuan.

HSSko erakundeek % 22,1ek finantziazioa jasotzen du erantzukizun publikoko zerbitzuen prestaziorako.

Finantziazio publikoaren helburuari dagokionez, aipatzekoa da HSSko erakundeek % 22,1ek erantzukizun publikoko zerbitzuen prestaziorako finantziazioa jasotzen duela; Hirugarren Sektore orokorrean, berriz, hori kasuen % 12,9an soilik gertatzen da. Orobat, badirudi ohikoagoa dela erakundeek inbertsioetarako finantziazioa jasotzea (% 18,2 HSSan eta % 8,6 Hirugarren Sektore orokorrean).

7.6. Grafikoa. Finantziazio publikoa jasotzen duten erakundeek finantziazioaren helburuaren arabera. Ehunekoak.




GASTUAK

Erakundeek jarduerara zuzenean bideratzen dituzten gastuak gastu osoaren % 85,9 dira, batez beste.

**Jarduerarako gastua
gastu osoaren
% 85,9 da.**


7.7. Grafikoa. Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa, gastuaren helburuaren arabera. Batez besteko proportzioa.



[K=82]

Gastuaren izaerari begiratzuz, ikus daiteke pertsonala erakundearen osoko gastuaren % 33,8 dela, gastu horrek Hirugarren Sektorean orokorrean duen proportzioa (% 24,2) baino handiagoa. Hori bat dator soldatako pertsonalak HSSan duen pisu handiagorekin.

7.8. Grafikoa. Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa, bere izaeraren arabera. Batez besteko proportzioa.




[K=129]

Kontuan hartzen badira gastu mota bakoitza benetan duten erakundearen datuak soilik, ikus daiteke pertsonalaren alorreko gastuak protagonismoa hartzen duela, erosketak edo kontsumoetara zuzendutako gastuaren kaltetan; halaber, gastu orokorrak txikiagoak dira, ikuspuntu konparatibotik.

Hain zuzen ere, pertsonalaren alorreko gastuak erakundearen osoko gastuaren %55,1 dira, batez beste (Hirugarren Sektore orokorrean, batez besteko ehunekoa %50,4 da), erosketak edo kontsumoetarako gastua %33,2 (%46,4, orokorrean) eta gastu orokorrak % 19,9 (% 22,8 Hirugarren Sektore orokorrean).

7.9. Grafikoa. Gastu mota bakoitzak osoko gastuan duen pisu erlatiboa, gastuaren izaeraren arabera, gastu hori duten erakundeetan. Batez besteko proportzioa.




LIKIDEZIA ETA ZORPETZE ARAZOAK

Lau erakundetatik batek dio badituela likidezia-arazoak edo altxortegiko tentsioak.

Lau erakundetatik batek dio badituela likidezia-arazoak edo altxortegiko tentsioak (zifra horiek berdintsuak dira Hirugarren Sektore orokorrean).

Dirudienez, arazoek presentzia handiago dute Etorkinen erakundeetan artean, eta Emakumearen eta Adineko Pertsonen alorreko erakundeak dira arazo hori gutxien pairatzen dutenak.

7.10. Grafikoa. Erakundeen banaketa, likidezia-arazoak egotea irizpidetzat hartuta. Ehunekoa.



[K=152]

Zorpetze garbiaren batez besteko ehunekoa % 29,7 da, baina galdera honetarako jasotako lagina txikia denez, komenigarria da datu horiek zuhurtzia handiz hartzea.


JABETZAKO LOKALAK

Erakundeek % 21,3k dio badituela jabetzako lokalak.

Erakundeek % 21,1ek dio badituela bere jabetzakoak diren lokalak.

Ehuneko hori Hirugarren Sektore orokorrarena baino handiagoa da, berau % 13,9 baita.

7.11. Grafikoa. Erakundeen banaketa jabetzako lokalak izatea irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.



[K=161]

Gizarte Ekintzaren eremuko erakundeek neurri handiagoan dituzte jabetzako lokalak; Etorkinen eta Adineko Pertsonen erakundeek kasuan, aldiz, ehuneko hori askoz ere txikiagoa da.

AITORTZA

Erakundeek % 33,1ek dio izaera sozialeko erakunde bezala dagoela aitortuta, eta % 16,9k onura publikoko erakunde bezala.

Ehuneko horiek Hirugarren Sektorearentzat orokorrean erregistratutakoak baino apur bat handiagoak dira (% 26,2 eta % 13,1, hurrenez hurren).

Erakundeek herenak izaera sozialeko erakunde bezala daude aitortuta, eta erakundeek seirenak onura publikoko erakunde bezala.

AUDITORIAK

HSSko erakundeek % 16,6k dio kanpoko kontabilitate-auditoria bat eskatu duela azken 3 urteetan; proportzio hori Hirugarren Sektorearen proportzio orokorra baino apur bat handiagoa da, berau % 11,8 baita.

Erakundeek % 16,6k dio kanpoko kontabilitate-auditoria eskatu duela azken hiru urteetan (% 11,8, Hirugarren Sektore orokorrean).

8. KUDEAKETARAKO ESTRATEGIAK


PLAN ESTRATEGIKOAK

Kudeaketa-sistema eta -tresnen ezarpen maila, apala izan arren, handiagoa da HSSan Hirugarren Sektore orokorrean baino, batez ere Enpleguaren eta Gizarte Ekintzaren alorretan.

Erakundeen norabidea eta kudeaketa ezartzen laguntzen duten planak ezartzea ohikoagoa da Hirugarren Sektoreko erakunde batzuetan beste batzuetan baino. HSSko datuek erakusten dutenez, erakunde horietako ezarpen maila beste azpisektore batzuetakoa baino handiagoa da, apala izaten jarraitzen badu ere.

Hala, erakundeen %35,8k badu plan estrategikoa (Hirugarren Sektore orokorrean: %27,5), %34,2k badu laneko arriskuen prebentziorako plana (Hirugarren Sektore orokorrak: %21,1), %30,8k badu emaitzak ebaluatzeko sistema formalizatu bat (Hirugarren Sektore orokorrak: %21,1), % 4,8k badu prestakuntza plana (orokorrean: %19,4), eta %17,4k kalitate-sistema ezarri du (%10,4, Hirugarren Sektore orokorrean).

8.1.Grafikoa. Erakundeen banaketa, plan bakoitza izatea -edo ez- eta haien formalizazio maila irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.



Beren kudeaketa-tresnak oraindik ere formalizatu ez dituzten baina horri lotutako ekintzak garatzen hasi diren erakundeei buruzko datuek adierazten dutenez, HSSko erakundeek nolabaiteko aurrerapena dute alderdi horretan, Hirugarren Sektore orokorreko erakundeen aldean.

Eremuen araberako azterketak erakusten duenez, Enpleguaren eta Gizarte Ekintzaren alorretako erakundeak dira kudeaketa-tresnak neurri handienez erabiltzen dituztenak.

8.1.Taula. Erakundeen banaketa, plan bakoitza izatea edo ez izatea eta haien formalizazio maila irizpidetzat hartuta, jarduera-eremuaren arabera. Ehunekoak.

		HSS	Emakumea	Adineko Pertsonak	Etorkinak	Enplegua	Gizarte Ekintza	Osasuna
Plan Estrategikoa [K=159]	Bai, idatziz	35,8	28,6	10	0	63,6	50	22,2
	Idatziz ez, baina ekintzak garatzen ditugu	26,4	14,3	5	50	9,1	26,4	44,4
	Ez	37,7	57,1	85	50	27,3	23,6	33,3
Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana [K=155]	Bai, idatziz	34,2	0	0	0	81,8	49,3	27,3
	Idatziz ez, baina ekintzak garatzen ditugu	7,1	7,1	0	16,7	9,1	9,9	3,0
	Ez	58,7	92,9	100	83,3	9,1	40,8	69,7
Prestakuntza Plana [K=153]	Bai, idatziz	24,8	7,1	0	16,7	63,6	35,3	14,7
	Idatziz ez, baina ekintzak garatzen ditugu	29,4	14,3	15	33,3	18,2	33,8	38,2
	Ez	45,8	78,6	85	50	18,2	30,9	47,1
Kalitate Plana/ Sistema [K=149]	Bai, idatziz	17,4	0	0	0	60	25,8	9,1
	Idatziz ez, baina ekintzak garatzen ditugu	15,4	14,3	0	16,7	20	22,7	9,1
	Ez	67,1	85,7	100	83,3	20	51,5	81,8
Kode Etikoa [K=152]	Bai, idatziz	23,7	23,1	0	0	54,5	32,8	14,3
	Idatziz ez, baina ekintzak garatzen ditugu	28,3	15,4	15	33,3	27,3	25,4	45,7
	Ez	48,0	61,5	85	66,7	18,2	41,8	40
Proiektu eta Jardueren Emaitzak Ebaluatzeko Sistema [K=146]	Bai, idatziz	30,8	23,1	5	33,3	40	39,1	30,3
	Idatziz ez, baina ekintzak garatzen ditugu	28,1	7,7	30	50	30	29,7	27,3
	Ez	41,1	69,2	65	16,7	30	31,3	42,4

KUDEAKETARI LOTUTAKO POSTU ESANGURATSUAK

Erakundeen % 26,4k dio baduela gerentziaz arduratzen den pertsona bat, eta % 37,1ek dio baduela administrariaren bat. Ehuneko horiek Hirugarren Sektorea-
rentzat erregistratutako emaitzen gainetik daude (% 19,4 eta % 24,3, hurrenez
hurren).

8.2. Taula. Kudeaketari lotutako postu esanguratsuak dituzten erakundeen propor-
tzioa. Baiezkoen ehunekoak.¹⁴

	Gerentea	Giza Baliabideen arduraduna	Koordinatzaileak / Saileko arduradunak	Administrariak	Kalitate arduraduna
HSS [K=94]	26,4	15,7	39,3	37,1	12,9

KALITATEA ETA BESTE ZIURTAGIRI BATZUK

Kalitate-ziurtagiriren bat duten erakundeen proportzioa %10 ingurukoa da (Hiru-
garren Sektore orokorraren kasuan, %7 inguru). Ziurtagiri ohikoena ISO 9001 da
(%6,7). Ziurtatutako erakundeak Enplegu eta Gizarte Ekintzaren alorretakoak dira
batik bat.

8.3. Taula. Kalitatearen kudeaketari lotutako ziurtagiria duten erakundeen propor-
tzioa, ziurtagiriaren arabera. Ehunekoak.¹⁵

	ISO 9001	Zilarrezko Q	Urrezko Q	PREMIE Ziurtagiria
HSS [K=139]	6,7	0,6	0,0	2,8


INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT)

Erakundeen % 85 inguruk tresna informatikak erabiltzen ditu erregulartasunez.
Gainera, % 80,5ek maiztasunez erabiltzen du posta elektronikoa, eta % 59,4k
badu webgune propioa. Datu horiek ez dira asko urruntzen Hirugarren Sektore
osoarentzat erregistratutako datuetatik.

14 Ehuneko hau kalkulatzeko, Ed/Ee (ez daki/ez du erantzuten) erantzunak ere sartu dira;
izan ere, adierazi gabeko erantzun negatiboei lotuta egon daitezke, eta kanpo uzteak
are gehiago desitxuratzen du azkeneko emaitza.

15 Ehuneko hau kalkulatzeko, Ed/Ee (ez daki/ez du erantzuten) erantzunak ere sartu dira;
izan ere, adierazi gabeko erantzun negatiboei lotuta egon daitezke, eta kanpo uzteak
are gehiago desitxuratzen du azkeneko emaitza.

8.2. Grafikoa. Erakundeen banaketa IKTen erabileraren arabera, zenbait parametro irizpidetzat hartuta. Ehunekoak.




Eremuen arabera, Enplegua eta Gizarte Ekintza dira, berriz ere, IKTak batez bestekoaren gainera txertatu dituzten eremuak. Adineko Pertsonen eta Emakumearen eremuen indizeak nabarmenki txikiak dira.

IKTak sarri askotan edo sarritan erabiltzen dira: barneko eta kanpoko informazioa kudeatzeko (% 75,9); kudeaketa ekonomiko-finantzariarako (% 68,9), barneko parte-hartzea sustatzeko (% 59,4) eta oinarri soziala kudeatzeko (% 57,5). Hala eta guztiz ere, erakundeen erdiek baino gehiagok diote ez dituztela inoiz ere erabiltzen eragin politikoko lana egiteko, ezta kolaborazio-lana ere egiteko.

IKTen erabilera hedatuta dago, baina beharrezkoa da bultzatzea erakundeen eginkizun batzuetarako

8.3. Grafikoa. Erakundeen banaketa teknologia berrien erabileraren eta horren helburuaren arabera. Ehunekoak.



[K=105-120]

KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa bultzatu beharreko beste alderdi bat da.

Komunikazioak erakundeentzat duen garrantziaren funtsa beren jardueran inplikaturik dauden talde edo eragileekin eratzten den lotura da. Alderdi horretan, HSSren datuak ez dira asko urruntzen Hirugarren Sektore osoarentzat erregistratutako datuetatik.

Erakundeen proportzio handi batek dio jardueren urteko oroitidazkia egiten duela; oroitidazki hori bere bazkideei edo bere kide diren erakundeek helarazten die, eta sarritan finantzatzaileei edo dohaintza-emaei ere bai.

Kontuen egoerari dagokionez, bazkideak, finantzatzaileak eta dohaintza-emaeak dira horri buruzko informazioa erakundeek aldetik gehien jasotzen dutenak; ez da ohikoa horrelako informazioa helaraztea inplikaturik dauden gainerako kolektiboek edo “interes-taldeek”.

Erakundearen misioa eta balioak bazkideekin konpartitzen dira batik bat; dena dela, hori egiten duten erakundeak ez dira iristen erakundeek % 55 izatera. Been ekintzen inaktuari eta beren helburuen betetze mailari buruzko informazioa helarazten duten erakundeek proportzioa txikiagoa da. Nabaritzen den gabezia nagusia informazio hori gizarte, hedabide eta beste erakunde batzuentzako transmisioan dago.


8.4. Taula. Informazioa erakundeek inplikaturik dauden kolektiboek normalean edo erregulartasunez helarazten dieten erakundeek proportzioa, informazioa eta kolektibo moten arabera. Baiezkoen ehunekoak.

	Jardueren urteko oroitidazkia	Kontuen egoera	Erakundearen misioa eta balioak	Gobernu-organoen osaketa	Erakundeko pertsonen adierazleak	Helburuen betetze maila	Beren ekintzen inaktua	
INPLIKATUTAKO KOLEKTIBOAK [K=123]	Gizartea, orokorrean	20,3	14,6	44,7	16,3	13,0	13,8	29,3
	Pertsona hartzaileak	30,9	17,9	43,1	26,0	13,0	30,1	28,5
	Pertsona boluntarioak	45,5	30,9	44,7	37,4	24,4	39,0	35,0
	Bazkide diren pertsonak /kide diren erakundeak	72,4	73,2	54,5	66,7	35,0	58,5	54,5
	Finantzatzaileak/ dohaintza-emaileak	60,2	52,8	46,3	47,2	30,9	48,0	46,3
	Beste erakunde batzuk	22,0	13,0	34,1	19,5	10,6	19,5	20,3
	Hedabideak	9,8	3,3	26,8	12,2	4,9	9,8	19,5

Erakundeek %39 inguruk dio komunikazio-kanpainak egiten dituela maiztasunez, eta %41,3k noizean behin.

Erakundeek ia %20k dio ez duela inolako ekintzarik egiten alor horretan (%24,5, Hirugarren Sektore orokorrean).

8.4. Grafikoa. Erakundeen banaketa, azken urteotan egindako komunikazio-kanpainen maiztasunaren arabera. Ehunekoak.



Eremuen araberako datuek erakusten dutenez, Osasunaren eremuko erakundeak dira horrelako kanpainak gehien egiten dituztenak, eta Adineko Pertsonenak gutxien egiten dituztenak.


Komunikazio-kanpaina hauentzat gehien erabiltzen diren euskarriak hitzaldiak eta solasaldia dira (% 49,5), eta gero liburuxkak (% 47,9) eta kartelak (% 42,3).

Beste alde batetik, bidalketa elektronikoak beren komunikazio-kanpainetan erabiltzen dituzten erakundeen proportzioa posta arrunta erabiltzen dutenen proportzioa baino apur bat txikiagoa da, oraindik ere (% 35,6k posta elektroniko eta % 35,2 posta arrunta).

Komunikazio-kanpaina hauen bidez erakundeek bilatzen dituzten helburu nagusiak -Hirugarren Sektorean orokorrean gertatzen den bezala- dira erakundea ezagutzera ematea (% 77,4) eta herritarrak sentsibilizatzea (% 64,4).

Nolanahi ere, HSS batez besteko mailaren azpian dago kanpainen bi erabilera hauetan: funtsak biltzea (%11,6 vs %18,7) eta administrazio publikoetan eragina izatea (%18,5 vs %19).

8.5. Grafikoa. Komunikazio-kanpainak egiten dituzten erakundeen proportzioa, helburu bakoitzaren arabera, kanpainak egiten dituzten erakundeak erreferentziatzat hartuta. Ehunekoak.



9. ERAKUNDEEN HARREMANAK

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN SUSTATUTAKO PARTE-HARTZE EKIMENAK

Inguruneke beste eragile batzuekiko harremana garatuago dago HSSko erakundeetan Hirugarren Sektore orokorreko erakundeetan baino.

Ia erakundeen erdiek (% 48,7) diote parte hartu dutela administrazio publikoek sustatutako parte-hartze ekimenen batean (kontseiluak, planak prestatzea eta ebaluatzea, edo gisa bereko bete ekimenen bat). Ehuneko hori Hirugarren Sektorearentzat estimatzen dena baino handiagoa da (% 37,6).

Emakumearen eta Gizarte Ekintzaren alorreko erakundeak dira horrelako ekimenetan gehien parte hartzen dutenak.

9.1. Taula. Administrazio publikoak sustatutako parte-hartze ekimenetan parte hartu duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.

Parte hartu dute		
HSS [K=154]		48,7
EREMUAK [K=154]	Emakumea	68,4
	Adineko Pertsonak	45,8
	Etorkinak	33,3
	Enplegua	25,0
	Gizarte Ekintza	61,3
	Osasuna	26,3

HARREMANA EDO LANKIDETZA INGURUNEKO ERAGILEEKIN

Oro har, datuek berresten dute erakundeek lotura estuagoak dituztela administrazio publikoarekin beste edozein eragilerekin baino; hala, erakundeen %96k baino gehiagok badu harremanen bat administrazio publikoarekin.

Beste alde batetik, erakundeen parte garrantzitsu batek dio ez duela inongo harreman edo lankidetzarik izan erakunde erlijiosoekin (%62,9) edo enpresekin (%47,2).

Harreman mota aldatu egiten da eragilearen arabera. Hala:

- administrazio publikoarekiko harremanak finantziazioarekin, informazioa bidualtzearekin eta lokalen lagapenarekin daude lotuta gehienbat;
- enpresa-sektorearekin loturaren bat duten erakundeek kasuan, lotura nagusiak hauek dira: informazio-kontuak, zerbitzuen kontratazioa, eta dohaintzak edo diru laguntzeak ematea;
- sektoreko erakundeek arteko harremanak informazioaren trukean eta elkarrenganako aholkularitzan oinarritzen da batik bat;
- bigarren eta hirugarren mailako erakundeekin dauden harremanak dagokienez, helburu nagusia informazioa trukatea da; dena dela, erakundeek % 18k dio sareren batekin lan egin duela sektorearentzat interes komuna duten gaietan;

- erakunde erlijiosoekiko harremanak informazioa trukatzearekin eta lokalak lagatzearekin du zerikusia, batez ere;
- Aurrezki Kutxen Gizarte Ekintzarekin dauden harremanei dagokienez, gai nagusiak finantziazio-kontuak eta informazioaren transmisioa dira.

Ikusten den panorama Hirugarren Sektorearen kasuan orokorrean ikusten denaren antzekoa bada ere, esan daiteke gutxiago direla eragile garrantzitsu batzuekin loturarik ez duten erakundeak.

Txikiagoa da administrazio publikoekin loturarik ez duten erakundeen proportzioa (%3,9 vs %4,7); hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin (%19,1 vs %23,6); Aurrezki Kutxen Gizarte Ekintzarekin (%38,2 vs %47,1) eta bigarren edo hirugarren mailako erakundeekin (%28,1 vs %36,6).

9.2. Taula. Inguruneko eragileekin harremanik izan ez duten erakundeen proportzioa, jarduera-eremuaren arabera. Baiezkoen ehunekoak.¹⁶

[K=178]	HSS	Emakumeak	Adineko pertsonak	Etorkinak	Enplegua	Gizarte Ekintza	Osasuna
Ez dago inolako lankidetzarik edo harremanik administrazio publikoarekin	3,9	5,3	3,8	14,3	0	2,7	8
Ez dago inolako lankidetzatza-harremanik enpresekin	47,2	78,9	65,4	57,1	18,2	30,7	57,5
Ez dago inolako harremanik irabazi-asmorik gabeko erakundeekin.	19,1	42,1	50	0	0	8	17,5
Ez dugu inolako harremanik izan bigarren edo hirugarren mailako erakundeekin (sareak)	28,1	78,9	88,5	71,4	54,5	45,3	72,5
Ez dugu inolako harremanik izan ezein erakunde erlijiosorekin	62,9	57,9	46,2	42,9	36,4	29,3	40
Ez dago inolako harremanik Aurrezki Kutxen Gizarte Ekintzekin	38,2	31,6	50	42,9	36,4	62,7	50

Jarduera-eremuaren arabera, ikus daiteke Enpleguaren eremuko erakundeek lankidetzatza handiagoa dutela enpresa-sektorearekin; horrelako loturak neurri txikienean dutenak, berriz, Emakumearen eremuko erakundeak dira.

Beste alde batetik, Adineko Pertsonen eremuko erakundeak dira harreman gutxien dituztenak hirugarren sektoreko gainerako erakundeekin; horrelako lankidetzak gehien dituztenak, berriz, Enpleguaren, Etorkinen eta Gizarte Ekintzaren eremuetako erakundeak dira.

Ikus daiteke, halaber, Gizarte Ekintzaren eremuko erakundeak direla erakunde erlijiosoekin gehien kolaboratzen dutenak, eta Emakumeen eremukoak gutxien kolaboratzen dutenak.

¹⁶ Ehuneko hau kalkulatzeko, Ed/Ee (ez daki/ez du erantzuten) erantzunak ere sartu dira; izan ere, adierazi gabeko erantzun negatiboek lotuta egon daitezke, eta kanpo uzteak are gehiago desitxuratzen du azkeneko emaitza.


ZENBAIT ERAGILEREN SOSTENGUA

Oro har, beren inguruneko eragileen aldetik erakundeek antzematzen duten sostengua eskasa da, nahiz eta beren balorapena Hirugarren Sektore orokorrarena baino hobea den.

Orokorrean, HSSko erakundeek beren inguruneko eragileen aldetik sentitzen duten sostengua txikia da; dena dela, eragile gehienek sostengu horri buruz egiten duten balorapena hobea da Hirugarren Sektore orokorraren batez bestekoa baino.

Erakundeen iritziz, Bizkaiko Foru Aldundia da sostengurik handiena ematen duen eragilea (% 68k dio “oso” edo “nahiko” lagunduta sentitzen dela beraren aldetik); sektoreari gutxien laguntzen diotenak, berriz, alderdi politikoak eta sindikatuak dira. Azken bi eragile horien aldetik sostengurik jasotzen ez dutela edo oso sostengu txikia jasotzen dutela uste duten erakundeen proportzioa Hirugarren Sektore orokorreko erakundeena baino apur bat handiagoa da (% 98,4 eta % 98,3 vs % 96,4 eta % 95,1).

9.1. Grafikoa. Erakundeen banaketa, eragileen aldetik jasotzen duten sostenguari buruz egiten duten balorapenaren arabera. Ehunekoak.




Eremuen araberrako azterketa ikusita, badirudi Etorkinen erakundeak direla gutxien konformatzen direnak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin. Beste alde batetik, Emakumeen erakundeak dira satisfazio txikiena erakusten dutenak Aurrezki Kutxen Gizarte Ekintzak ematen duen laguntzarekin.

GIZARTEAREN KONFIANTZA

